

Araba Álava

Laudio Llodio

LIPMESA



Lipmesa enpresako instalazioak Laudioko Areta auzoan daude. Automobilaren industriarako motelgailuak egiten dituzte bertan. Eraikinak Gasteiz eta Bilbo lotzen dituen errepidearen bi aldeetan daude, errepidea RENFEren linearen azpitik igarotzen den gunetik hurbil. Errepidearen alde batean daude eraikin zaharrenak, 1955 inguruan eraiki zituztenak: ekoizpenerako nabea, bulegoak eta langileen etxebizitzak; beste aldean, berriz, biltegirako erabiltzen duten pabiloi bat dago. Nabarmentzekoa da bulegoen eraikina. Bistako adreiluz eraikita dago, eta fatxada nagusiak eraikinarren altuera osoa hartzen du, fabrikazioko nabeari atxikita. Nabe hori oso funtzionala da, apaingarri handirik gabea, eta bertan horizontaltasuna da nagusi. Enpresak langileentzako etxebizitzak ere eraiki zituen. Inguruko etxebizitza-bloke baten fatxadetan, enpresaren iragarkiak agertzen dira.

Las instalaciones de la empresa Lipmesa, dedicada a la comercialización y reenvasado de amortiguadores para la industria del automóvil, se encuentran en el barrio de Areta de Llodio. Sus edificios se alzan a ambos lados de la carretera de Bilbao a Vitoria-Gasteiz y próximos al paso inferior de esta carretera bajo la línea de RENFE. A un lado de la carretera se levantaron las edificaciones más antiguas, que fueron construidas aproximadamente en el año 1955, con la nave de producción, las oficinas y las viviendas obreras, y al otro lado nos encontramos con un pabellón que cumple las funciones de almacén. Destacamos el edificio destinado a oficinas. Construido en ladrillo visto, su fachada principal se abre todo lo alto del edificio y se adosa a la nave de fabricación donde domina la funcionalidad sin concesiones decorativas y la horizontalidad. La empresa se ocupó también de ofrecer vivienda para sus trabajadores. Un bloque de pisos cercano decora sus fachadas medianeras con carteles publicitarios de la empresa.